

FUNTSEZKO JARDUERA

Lehenik, gure proiektua ezagutzera emateko, sareetara hedatzea ezinbestekoa izango da. Web orrialde bat sortuko dugu jendeak gure proiektua ezagutu dezan, eta dauzkaten zalantzei erantzun ahal izateko. Orrialde horrek bezeroekiko gertutasuna izango du ezaugarrietako bat, beti emango baitzaie edozer dela eta gurekin harremanetan jartzeko aukera. Gainera, erosleei gure eskaintza iristarazteko helburuarekin sare sozialetara zabalduko dugu gure eskaintza, jendeak jakin dezan nor garen, zer egiten dugun eta zer berritasun dakarkigun.

Bigarrenik, gure produktuen ekoizpenak eskema jakin bat jarraitzen du: erosi, ekoitzi eta saldu. Esaterako, kalamuzko adreiluak, kristal ekologikoa, lastoa eta harria bezalako materialak erosi genituzke etxebizitzaren eraikuntzarako, eta ondoren material hori etxebizitzetan bilakatuko genuke.

Azkenik, arazoak saihesteko edo konponbideak emateko, hasteko, etxebizitza hauek eraikiko ditugun lekuen ingurua kontuan hartuko dugu beti. Hau da, etxebizitzak eraikitze inguruak dituen klima eta erliebearen arabera erabikiko dugu etxebizitzak eraikitze leku aproposak zeintzuk diren. Bestetik, etxebizitza guztiak dagokien ingurura egokitzen dira, bertan topa ditzakegun materialak erabiliko baititugu. Beraz, arazoa izan daiteke leku batean topatzen dugun materiala beste batean ez egotea, horren konponbidea litzateke leku horretan dagoen beste material bat erabiltzea aurreko lekuan erabili dugunaren orde; adibidez, lastozko kanabera erabili orde, bertan dagoen landareren baten materiala aprobetxatzea.